



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016KO APirilAREN 22AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka
Miren Itziar Arratibel Imaz

Etorri diren zinegotziak:

Maria Cristina Goya Amiama
Victoria Rodriguez Feloaga

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko apirilaren 22an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamarrak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2016KO MARTXOREN 11KO AKTAREN ONARPENA

2016ko martxoaren 11an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2016ko martxoaren 11an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- 2016KO APIRILAREN 14AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO GAIAK

2.1 ISABEL NAZABAL IZTUETAK AURKEZTU DUEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA OPORREN EGUTEGIARI BURUZKOA

Ikusi da Isabel Nazabal Iztuetak 2016ko urtarrilaren 22an Tokiko Gobernu Batzordeak bere egutegiari buruz (Iraileko 6 opor egunak, hau da, 5etik 13ra, abuztura pasa behar zituela) hartutako erabakiaren aurrean aurkeztu duen berraztertze errekurtsoa.

2016ko apirilaren 14ko Pertsonal Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENA: Isabel Nazabal Iztuetari jakinaraztea:

- 1) Onartzea abuztura pasatzea eskatzen dituen 6 egunak, hau da, maiatzeko 4 egun (10etik 13ra) eta iraileko 2 egun (12 eta 14).
- 2) Aldaketa honen ondorioz bere alde sortzen den 18 orduko saldoa abuztuan konpentsatzea 3 egun jai hartuz (15 ordu) eta beste hiru orduak abuztuko beste egun batean lanaldia murriztuz.
- 3) Urteko egutegia egiterakoan kontuan hartzeko abuztuan gehienez aste bat lan egitea onartuko zaiola, gainontzeko egunetan oporrak hartu beharko dituela.

BIGARRENA: Datorren urtera begira eta Kultur Etxeko ordutegia aztertzearen Nekane Azurmendi Etxegarai, Kulturako Teknikariari eskatzea Kultur Etxeak udaran eta Aste Santuan daukan erabilerari buruzko txostena.

HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinarazi Nekane Azurmendi Etxegarai, Kulturako teknikariari.

2.2 NEREA ALDAZABAL ARANALDEREN ESKAERA LANALDIAREN MURRIZKETARI BURUZKOA

Ikusi da Nerea Aldazabal Aranaldek egin duen eskaera. Udalitz-ek 56.1 artikulua dioena jarraituz, hamabi urte baino gutxiago dituen umea bere kargura edukitzeagatik gaur egun daukan %33ko lanaldi murrizketarekin urte osoan jarraitzea eskatzen du, nahiz eta bere alabak apirilaren 12 urte bete.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko apirilaren 14ko Pertsonal Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Nerea Aldazabal Aranaldek urte bukaeraino jarraitzea %33ko lanaldi murrizketarekin. 2017. urtetik aurrera lanaldi osoa egingo du.

Barne arautegiaren arabera, Kultur Etxean ezik, derrigorrezko presentzia 9:00etatik 14:00etara dago ezarrita.

2.3 BRIGADAREN ORDUTEGIA

Brigadako lan-taldea euren lanak horrela eskatzen duelako, goizean denak batera sartzen dira, gehienetan lana taldean edo gutxienez binaka egiten dutelako. Hori horrela, ezinezkoa zaie pilotutako orduak kitatzeko goizean beranduago etorri eta kentzea. Irteeran kentzeko berriz, 14:00etatik aurrera denez, askotan ezin kendu ibiltzen dira.

Planteatzen dute Brigadako langileak derrigorrezko presentzia 8:00etatik 13:00eta izatea.

2016ko apirilaren 14ko Pertsonal Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENA: Brigadako lan-taldearen derrigorrezko presentzia 8:00etatik 13:00etara izango da.

BIGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau Brigadako langileei.

HIRUGARRENA:

3.- 2016KO APIRILAREN 22AN BURUTURIKO OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAREN ONARPENA

3.1 IZASKUNGO ELIZ ONDOKO PLAZAKO ASFALTOA ETA EMETERIO ARRESEKO HELDUEN PARKEKO ASFALTOA KONPONTZEA

Ikusi da Izaskunen zuhaitz tartean dagoen plaza txikiko zoladura oso kaltetuta dagoela eta asfaltatzeko beharra duela. Gaizki dagoen petril zatia ere, 15 m inguru, konpontzeko dago.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bestalde, Emeterio Arresen dagoen adinekoen parkeko zoladura oso gaizki dago. 4 cm-ko kautxuzko zoladura zuloz beteta dago eta arriskutsu dago. Zorua 4 cm-koa da. Hau kendu eta asfaltoz betetzea aukera egoki eta merkeena izango litzateke. Gainera geruza, beltza utzi beharrean, kolorea ematea proposatzen da 3 arraziengatik:

- Udaran beltzaren berotasuna ekiditeko
- Estetikoki alaiago eta, beraz, erakargarriago izan daitekeelako
- Asfaltoa babestu egiten duelako

Mantentze lan hauek Inbertsionarako sortutako partida hauetatik finantzatu dira:

Izaskungo asfalto lanak.....1 0000.601.153.20.00 2016
Emeterio Arreseko helduen parkea.....1 0000.601.153.20.05 2016

Enpresa hauei eskatu zaie aurrekontua:

- ✓ Mularri SL
- ✓ Bixente Otegi Lizaso SL
- ✓ Orsa SL

Hauak dira enpresen eskaintzak (% 21 BEZ sartuta):

OBRA	MULARRI ERAIKUNTZAK S.L.	BIXENTE OTEGI LIZASO S.L.	ORSA S.L.
IZASKUNGO ASFALTOA ETA PETRILA	9.615,13 €	8.039,20 €	9.688,53 €
EMETERIO ARRESEKO HELDUEN PARKEKO ASFALTOA ETA AKABERA	9.337,89 €	7.605,58 €	8.534,38 €

2016ko apirilaren 22ko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA: Izaskungo eliz ondoko plazako asfaltoa botatzeko eta petrila konpontzeko mantentze lanak eta Emeterio Arreseko adinekoen parkea asfaltatu eta margotzeko mantentze lanak Bixente Otegi Lizaso, SL enpresari esleitzea eskaintza hobereana delako, honako prezioan:

Izaskungo asfalto lanak.....8.039,20 €(BEZ barne)
Partida:..... 1 0000.601.153.20.00 2016

Emeterio Arrese helduen parkea.....7.605,58 €(BEZ barne)
Partida:..... 1 0000.601.153.20.05 2016

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Mularri Eraikuntza S.L, Bixente Otegi Lizaso S.L eta Orsa S.L enpresei.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza sailari.

3.2 EMETERIO ARRESEKO ETA ARANTZAZUKO AMAKO HAUR PARKEEN ZOLADURAREN KONPONKETA

Arantzazuko Amako haur parkean zuloak daude eta arriskutsu dago. Bestalde, Emeterio Arreseko haur parkean hesia kendu behar da ez dagoelako modu egokian ainguratua eta haurrentzako arriskua dagoelako. Hesiaren hankak kentzean kautxuzko zoladuran zuloak geldituko dira, beraz, konpondu egin beharko dira.

3 enpresei galdetu zaie zein izan daitekeen irtenbide hobereana parkeak konpontzeko eta lanen balorazio ekonomikoa, eta honako proposamenak aurkeztu dituzte:

1.- BENITO URBAN

Emeterio Arrese parkean

- Hesia kendu eta zabortegira eraman
- Perimetro guztian 30 cm dagoen zoladura kendu eta SBR beltzarekin bete
- Parke osoan 10 mm-ko SBR beltza jarri
- Parke osoan 10 mm EPDM koloretan jarri nahi dugun marraskia eginda.
- Aurrekontua: $153 \text{ m}^2 \times 58 \text{ € m}^2 = 8.847,00 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 10.737,54 \text{ €}$
- Bermea: 8 urte, baldin eta ura ez bada bertan pilatzen edo hezetasun handia ez badago.

Arantzazuko Ama parkea

- Zuloak SBR beltzarekin bete



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Parke osoan 10 mm-ko SBR beltza jarri
- Parke osoan 10 mm EPDM koloretan jarri nahi dugun marrazkia eginda.
- Aurrekontua: $73 \text{ m}^2 \times 58 \text{ € m}^2 = 4.234,00 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 5.123,14 \text{ €}$
- Bermea: 8 urte, baldin eta ura ez bada bertan pilatzen edo hezetasun handia ez badago.

2.- GARRA S.L.

Emeterio Arrese parkean

- Hesia kendu eta zabortegira eraman
- Perimetro guztian 30 cm dagoen zoladura kendu eta SBR beltzarekin bete
- Parke osoan SBR beltza bota joko bakoitzaren azpian alturagatik dagokion geruza bermatuz eta parkea zertifikatzeko moduan gelditzeko.
- Parke osoan 10 mm enkapsulatua edo tintatua jarri, nahi dugun marrazkia eginda.
- Aurrekontua: $153 \text{ m}^2 \times 48 \text{ € m}^2 = 7.344,00 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 8.886,24 \text{ €}$
- Bermea: 4 urte

Arantzazuko Ama parkea

- Zuloak SBR beltzarekin bete
- Parke osoan 10 mm EPDM koloretan jarri nahi dugun marrazkia eginda.
- Aurrekontua: $73 \text{ m}^2 \times 42 \text{ € m}^2 = 3.066 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 3.709,86 \text{ €}$
- Bermea: 4 urte

3. LURKOI

Emeterio Arrese parkean (ez du aurrekontua aurkeztu, hitzez esan zuen Arantzazuko Amako parkearen prezio berdina izango zuela), beraz:

Perimetro guztian 30 cm dagoen zoru kendu eta SBR beltzarekin bete eta resina bota.
Childsplay geruza jarri perimetroa enkolatuz. Kolore batean bakarrik.
Aurrekontua: $153 \text{ m}^2 \times 36,51 \text{ € m}^2 = 5.586,03 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 6.759,10 \text{ €}$
Bermea: 7 urte (idatziz ez du aurkeztu)

Arantzazuko Ama parkea (aurrekontua aurkeztu du)

Zuloak SBR beltzarekin bete
Childsplay geruza jarri perimetroa enkolatuz. Kolore batean bakarrik.
Aurrekontua: $73 \text{ m}^2 \times 36,51 \text{ € m}^2 = 2.665,23 \text{ €} + \%21 \text{ BEZ} = 3.224,93 \text{ €}$



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bermea: 7 urte (idatziz ez du aurkeztu)

Bestalde Garra S.L. enpresak bi parkeen ikuskapena egin du eta zenbait akats ikusi ditu elementuetan. Txostena eta aurrekontua aurkeztu du:

- Emeterio Arreseko parkean kolunpioaren egurrezko 4 posteak aldatu
- Arantzazuko Ama parkean eskailera bat eta plataforma bat aldatu

Guztira 598,95 €BEZ barne.

2016ko apirilaren 22ko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Emeterio Arreseko eta Arantzazuko Amako haur parkeen zoruaren konponketa Garra S.L. enpresari esleitzea, soluzio hoberena dela ikusten delako, guztira 12.596,10 €tan (%21 BEZ barne). Konponketa hauek 1 0000.601.171.00.01 2016 partidatik finantzatuko dira.

BIGARRENA: Onartzea Garra S.L. enpresaren aurrekontua bi parkeetako elementuak konpontzeko 598,95 €tan (%21 BEZ barne). Konponketa hauek 1 0000.601.171.00.01 2016 partidatik finantzatuko dira.

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Benito Urban, Garra S.L eta Lurkoi enpresei.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza sailari.

3.3 IBAIGAIN 4 LOKALEAN PLADURREZKO TABIKE ETA SABAIA EGITEKO LANEN ESLEIPENA

Aurten, Ibai Gain 4ko lokaleko obrekin jarraitzeko asmoa dago. Lokala insonorizatuta dago eta hurrengo pausua tabikeak egitea da. Sistema egokiena pladur motako tabikeak jartzea ikusten da, azkarra eta lehorra delako.

3 enpresei eskatu zaie aurrekontua pladur motako tabikeak egiteko eta sabai desmontablea egiteko:

- ✓ KIDEOK, S.L.....9.343,11 €(%21 BEZ barne)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- ✓ XINGOLA, S.L.....9.148,21 € + sabaian perimetro jarraia egin gabe, perimetro jarraia eginda 10.350 € inguru, BEZ barne)
- ✓ BORJA FERNANDEZ.....9.761,31 € (%21 BEZ barne)

2016ko apirilaren 22ko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ibaigain 4ko lokaleko pladur motako tabikeak eta sabai desmontablea egiteko lanak KIDEOK SL enpresari esleitzea eskaintza hobereana aurkeztu duelako, guztira 9.343,11€ko prezioan (%21eko BEZ sartuta). Partida honetatik finantzatu da: 1 0000.622.337.20 00.

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Kideok S.L, Xingola S.L eta Borja Fernandez enpresei.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza sailari.

3.4 2016 URTERAKO MANTENIMENDURAKO MATERIAL ELEKTRIKOA

Udal elektrizistak material elektrikoa behar du urteko mantenimendua egiteko, bai argiteri publikoan, bai eraikin publikoetan. Setalderi eskatu zaio aurrekontua materialaren hornidurako eta eskaintza honakoa izan da:

- Material elektriko orokorra.....1.660,75 €
- Udaletxea.....54,15 €
- Polikiroldegia.....380,27 €

Bestalde, aurten ikastolan, polikiroldegian eta kukumikun derrigorrezkoa den ikuskapen elektrikoa egin da eta Uzturpe haurreskolan ere egin beharra dago. Ikuskapenak egin dituen enpresaren arabera, emergentziko argiak ez dabilta, beraz, berriak jarri behar dira. Udal elektrizistak Uzturpe haur-eskolako emergentziak ez dabiltzala ikusi du, bera, horiek ere aldatu behar dira. Beraz, ikuskapen elektrikoaren ondorioz beharrezkoa den materiala hau da:

- Ikastola:
 - 2 ut. Difenetzial ID-K 4P 40A191,62 €
 - 3 ut. Diferentzial IID-K 4P 63A.....722,91 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

35 ut. Led emergentziak 100 lm.....	923,23 €
2 ut.enpotratzeko markoak.....	12,51 €
- Uzturpe haurreskola:	
17 ut. Led emergentziak 100 lm.....	448,46 €
13 ut. enpotratzeko markoak.....	81,38 €
- Kukumiku:	
15 ut. Led emergentziak 100 lm.....	395,67 €
9 ut. enpotratzeko markoak.....	56,34 €

Idazkariak jakinarazten du aurrekontua gauzatzeko udal-araudiaren arabera 3 aurrekontu eskatu behar direla esleipen hauek egiteko.

2016ko apirilaren 22ko Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea SETALDE SL.ren aurrekontua materiala erosteko honako kopuruetan:

- ✓ Material elektriko orokorra.....1.660,75 €.....partida: 1 0000.210.165.00.00 2016
- ✓ Udaletxea.....54,15 €.....partida: 1 0000.211.920.00.00 2016
- ✓ Polikiroldegia.....380,27 €..... partida: 1 0000.211.342.00.00 2016
- ✓ Ikastola eta haurreskola.....2.380,11 €.....partida: 1 0000.211.324.00.00 2016
- ✓ Kukumiku.....452,01 €.....partida: 1 0000.211.323.00.00 2016

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea SETALDE S.L. enpresari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitetza sailari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA: Jakinaraztea kontuhartzaitza sailari Ikastolan eta Uzturpe haurtzaindegian konponketak egiteko dagoen partidan, 1 0000.211.324.00.00 2016 partidan, ez dagoela dirurik, beraz, kreditu aldaketako hurrengo espedientean sartu beharko dela 2.380,11 €ko gastuari aurre egin ahal izateko.

3.5 EUSKAL HERRIA 32-75 KALEKO ARGIEEN HORNIDURAREN ESLEIPENA

Aurten Euskal Herria 32-75 kalean argiak aldatu nahi dira energia aurrezteko asmoz. Txumitxatik Ibaigain aldera 150 Wko argiak daude, kontsumo altukoak. Kalean zehar, zutabearen altueraren arabera, potentzi ezberdinetako led argiak jartzea proposatzen da.

Argi mota ezberdinak aurkeztu dira, enpresa desberdinek aurkeztutakoak:

SETALDE S.L.

- ✓ EUSKAL HERRIA 32-46

BENITO URBAN

Nebraska 16 LED 37 w PREMIUM.....304 €

Nebraska 24 LED 53 w PREMIUM.....341 €

- ✓ EUSKAL HERRIA 59-75

Nebraska 32 LED 71 w PREMIUM.....370 €

OLETA BERRI S.L.

3 modelo:

- ✓ EUSKAL HERRIA 32-46

PHILIPS

Miniluma BGP 621 GRN49/ORF5.....399,20 €

MILEWIDE 2 BPP435 GRN45/740.....549,20 €

UNISTREET PEQ. BGP203 LED 50/740.....362,20 €

- ✓ EUSKAL HERRIA 59-75

Luma BGP 623 60 LED 84 w.....537,20 €

MILEWIDE 2 BRP436 40 LED 79 w.....676,20 €

UNISTREET BGP204 LED 100/740.....439,20 €

ERKA S.L.

Ledway road 20 LED 50 w 700 mA.....510,79 €

Ledway road 30 LED 52 w 500 mA.....566,82 €

10

GB 20160422



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Miniluma BGP 621 20 LED 700 mA.....405,88 €
Miniluma BGP 621 30 LED 500 mA429,42 €

Ikusita teknikoki edozein aukera izan daitekeela egokia.

Ikusita merkeena Benito Urbanen Nebraska PREMIUM modeloa dela.

Ikusita Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza teknikariak egindako txostenean Nebraska modeloa proposatzen dela.

Ikusita Obra eta Zerbitzuetako batzordearen irizpena.

Hau da Batzordeak, aho batez, hartutako

ERABAKIA

LEHENENGOA: Euskal Herria 32-75 kaleko Nebraska Premium argien hornidura Setalde S.L. enpresari esleitzea, prezio hoberena izanda, teknikoki eta estetikoki egokia ikusten delako, guztira 20.130,89 €-tan (%21 BEZ barne). Erosketa hau 1 0000.601.153.20.02 2016 partidatik finantzatuko dira.

Nebraska 16 LED 37 w.....(103 lm/w).....	367,84 € (BEZ barne)
Nebraska 24 LED 53 w.....(103 lm/w)	412,61 € (BEZ barne)
Nebraska 32 LED 71 w.....(103 lm/w)	447,70 € (BEZ barne)
Nebraska 48 LED 112 w.....(103 lm/w)	634,04 € (BEZ barne)
Zutabe tronkokonikoa 3 m.....	131,89 € (BEZ barne)
Zutabe tronkokonikoa 4 m.....	151,25 € (BEZ barne)
Zutabe tronkokonikoa 5 m.....	193,60 € (BEZ barne)
Paretako besoa	89,18 € (BEZ barne)

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea eskaintza aurkeztu duten enpresei.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza sailari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA

4.- 2016KO APIRILAREN 13AN BURUTURIKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIEN ONARPENA

4.1 IZASKUNGO JAIK 2016

Auzotarrek, urtero egin ohi duten modura, maiatzaren 14tik 15era ospatuko diren Izaskungo jaietarako egitarauaren proposamena eta eurei dagokien gastuen aurreikuspena aurkeztu dute. Jaietarako egitaraua eta aurrekontuaren aurreikuspena aztertzen dira.

Maiatzak 14, larunbata.

Jaien hasiera

18:00: **Zaldi lasterketa.**

Ondoren: **Pintxo eta Sagardo dastatzea (Zabala, Aburuza, Gaztañaga, Intsalus eta Sarasola sagardotegiak).**

Maiatzak 15, Igandea.

12:00: **Herri-kirolak:**

Aizkolariak: Arria V

Iker Bizente

Motozerra erakustaldia: Luis Erasoren eskutik figura ikusgarriak.

14:30: **Herri bazkaria.** Ondoren **Julio Soto eta Iker Zubeldia** bertsolarien emanaldia.

18:00: **“Gorriti eta bere animaliak”.**

19:00: **Erromeria Loatzo Musika Eskolako musikarien** eskutik.

Maiatzak 16, Astelehena.

10:00: **Diana.**

11:00: **Meza Nagusia.**

12:00: **Hamaiketako herrikoia.**

13:00: **Bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Anjelmari Peñagarikano.**

17:30: **Alur dantza taldearen** emanaldia.

Segidan: **Haurrentzako gozokiak**

18:30: **Bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Anjelmari Peñagarikano.**

19:00-20:30: **Erromeria Loatzo Musika Eskolako musikarien** eskutik eta jaien amaiera.

AURREKONTUAREN AURREIKUSPENA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

KONTZEPTUA	GASTUA 2016
AUZOKO BATZORDEAREN GASTUAK:	6.576,00 €
Zaldi lasterketa (15 zaldi)	1.500,00 €
Belardiaren garbiketa	545,00 €
Betizuak eta poniak	726,00 €
Trikitilarien bazkaria (2 x 25,00 €)	50,00 €
Sagardo dastaketa	500,00 €
Pintxoak, ogia, serbiletak, txotxak, basoak:	700,00 €
Herri kirolak: Aizkolariak eta motozerra	1.200,00 €
4 bertsolari	1.200,00 €
Anbulantzia (DYA)	155,00 €
UDALETXEAREN GASTUAK:	2.420,00 €
Dantzarien merienda	560,00 €
Goxokiak	150,00 €
Hamaiketako herrikoia *	
Megafonia	1.161,60 €
Suziriak	
Toldoen alokairua	80,00 €
Trikitixa	400,00 €
Trofeoak	60,00 €
GUZTIRA	8.987,00 €

Aurrekontua: 9.000,00 €

* Hamaiketako herrikoia (Alkatearen gastuak):
425,00 €

2016ko apirilaren 13ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Izaskun auzoko 2016 urteko jaietarako aurkeztutako egitaraua eta dagokion aurrekontuaren aurreikuspena onartzea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENGOA: Izaskun auzoko 2016 urteko jaien gastua 1.0000. 226.338.10.06 2016
“Izaskungo festak” kontu-sailari egozte.

4.2 IBARRAKO UDALAK BELAUNTZAN DITUEN MUSIKA ENTSEGURAKO LOKALEN ARAUTEGIAREN ONARPENA

Ibarrako Udalak Belauntzan dituen musika entsegurako lokalen funtzionamendua erregulatzeko arautegiaren proposamena eta lokalen erabilera baimentzeko kontratuaren zirriborroa aurkezten dira:

IBARRAKO MUSIKA TALDEEK ETA MUSIKARIEK BELAUNTZAKO UDAL ENTSEGU LOKALAK ERABILTZEKO ARAUDIA

1.- Xedea

Ibarran kultur talde eta eragile anitz daudela gauza nabaria da. Ahal den neurrian, herriko kulturgintzan lanean diharduten eragile horiek euren jarduera aurrera eraman ahal izateko baliabideak eskaintzea eta ahalbidetzea da Udalaren helburua.

Hori dela eta, herriko musika taldeek eta musikariek zuten beharrari erantzunez, Ibarrako Udalak 2002. urtean Belauntzako obra pabilioian musika entseguak gauzatzeko hiru lokal egokitu zituen. Lokal horien erabilera arautzen zuen arautegia 2003. urtean onartu zuen Udalak eta herriko hiru musika taldeei bertan euren entseguak egiteko baimena eman zien.

2006. urtean musika entseguetarako lokalen egokitzapen teknikoa egin beharrean aurkitu zen Udala, eta ondorioz, beharrezkoak ziren obrak egin artean, lokal horien erabilera behin-behinekoz eragotzi zen.

2007ko irailean, behin egokitzapen teknikoa amaitu ostean, Udalak gaur egun lokal horietan diharduten musika taldeei eta musikariei entseguetarako lokalak erabiltzeko baimena eman zien.

Aipatutako datatik aurrera eta gaur arte, eskatu bezala eman izan dira baimenak, tokia bete arte eta hasieran baimendutako taldeek egun, iraunkor maila batekin jarraitzen dute entseatzen.

Lokal bakoitzean talde batek baina gehiago entseatzeko aukera dago, behar bat bezala jotzen baitute musika taldeek bertan hainbat instrumentu prest izatea, honek espazio aldetik suposatzen duen baldintzarekin.

Bitartean talde berriak sortzen joan dira, eta lokal horiek erabiltzeko arautegia berrikusi ez denez, Udalak ezin die entseatzeko aukerarik eskaini eta gainera zaildu egiten du taldeen errotazioa bermatzea egokitutako udal lokaletan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ondorioz, Udalak, herriko musika taldeei eta musikariei aukera berdinak bermatze aldera, beharrezkoa jotzen du lokal horien erabilerarako ondorengo oinarriak onartzea.

Honakoak dira oinarri hauen helburuak:

- Musika taldeei eta musikariei entseguetarako prestatuta dauden lokaletara sarbidea ematea.
- Sortzen diren talde berriek eta musikariek ere aukera izatea.
- Musikari gazteek egindako eskariei erantzutea.
- 24 hilabetez entseguetarako udal lokalean tokia izatea txandetan.

Entsegu lokaletarako sarbidea, funtzionamendu eta koordinazioa Kultura eta Gazteria Sailak zuzenduko du.

2.- Hartzaileak.

2.1.- Lokal horietan entseguetarako txanda Ibarra musika taldeek eta musikariek eskatu ahalko dute, baina taldearen sorrera edo ibilbidea gutxienez 6 hilabetekoa izan behar du eta horren jakinarazpena Udalari, zinpeko aitortza baten bitartez egingo da. Zinpeko aitortza taldearen ordezkari edo tutoreak sinatuko du.

2.2.- Ibarra taldeetat hartuak izan daitezten, baldintza hau bete beharko dute: *"taldekideen %50ak Ibarra udalerrian erroldatuta egon behar du"* eskaera aurkezteko momentuan.

3.- Eskaeren aurkezpena eta programaren indarraldia.

3.1.- Entsegu lokalak erabiltzeko eskaerak udal erregistroan aurkeztuko dira deialdia argitaratzen denetik hilabeteko epean. Eskaeren azterketa eta entseguak egiteko lokalen erabilera lagapenaren proposamena Kultura eta Gazteria Sailak egingo du.

3.2.- Eskabideak, oinarri hauekin batera, II. Eranskin gisa aurkezten den ereduaren arabera izango dira, eta eskatzaileen datuekin beteko dira, bertan adieraziko da zein egunetan erabili nahi den lokala baita ordutegia, eta txanda ere.

3.3.- Eskabideekin batera, taldekide bakoitzaren NANaren fotokopia aurkeztuko da.

3.4.- Ikusiko balitz eskabide-egileak aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osatua edo ez dituela betetzen deialdi honetan eskatzen diren betekizunak, 10 laneguneko epea emango zaio interesatuari, hutsegiteak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, jakinaraziz hori egingo ez balu eskaerari uko egiten diola ulertuko dela, eta, ondorioz, eskaera artxibatu egingo dela beste inolako tramiterik egin gabe, indarrean dagoen araudiaren arabera.

3.5.- Entseguetarako lokalen erabilera lagapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31a arte indarrean egongo da. Lagapena gehienez bi urtetarako egingo da.

3.6.- Eskabidea onartu ondoren, talde bakoitzeko titularrak esleitutako lokalaren erabiltzeko baimena kontratu-dokumentua sinatuko du.

4.- Erabilera lagapena emateko prozedura.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eskabideen balorazioa egingo da eta onuradunen zerrenda puntuazioaren arabera erabakiko da. Aipatutako zerrenda hori udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jarriko da ikusgai.

Eskabideak aztertu eta klausula honetan ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira. Balorazioan berdinketa gertatuz gero, zozketa bat egingo da onuradunak hautatzeko.

Zerrendako 1 eta 5 postuan geratzen diren taldeak A lokalean entsegatuko dute. 2 eta 3 postuan geratzen direnak B lokalean arituko dira (lokal horretan musikari bakarlariak edota musika talde txikientzat lehenetsiko da erabilera). 4 eta 6 postuan geratzen direnak C lokalean arituko dira. Beti ere, taldeen artean adostasunez egindako aldaketak onartuko dira.

Lokal bakoitzeko erabiltzaileen artean adostu beharko dituzte txanda eta ordutegiak eta horretarako ez du inork lehentasunik izango. Adostasunik ez bada lortzen taldeen artean, Udalak zehaztuko ditu txandak eta ordutegiak.

4.2.- Balorazio irizpideak:

Lokalak erabiltzeko baimena publizitatearen, berdintasunaren eta lehia-erregimen irizpide objektiboen arabera egingo da. Esleitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Partaideen errolda: 30 puntu arte

Ibarran erroldatuta	Puntuak
Partaideen %100arte	30
Partaideen %75arte	20
Partaideen %50arte	10

Edonola ere 2.2 klausulan aipatutako baldintza bete beharko da

b) Partaideen batz besteko adina: 20 puntu arte

Taldeko kideen batz besteko adina	Puntuak
20 urte arte	20
21-25 urte bitartekoak	15
26-30 urte bitartekoak	10
31-35 urte bitartekoak	5
35 urte gorakoak	0

Edonola ere 2.2 b) klausulan aipatutako baldintza kontuan izango da

4.3.- Eskabideak aztertu eta irizpide horien arabera puntuatuko dira, horretarako puntuak gehituko dira, gehienez, 60 puntu lortu arte. Edonola ere 2. artikuluan aipatutako baldintzak bete beharko dira.

4.4.- Eskaren balorazioan berdinketa gertatuko balitz, ZOKETA egin eta itxaron zerrenda bat egingo da gerta litezkeen bajak edo proposatutako baldintzen ez betetzeak estaltzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.5.- Kultura eta Gazteria Saila arduratuko da eskabideak aztertzeaz eta baloratzeaz, deialdi honetan ezartzen diren irizpideen arabera, eta aipatutako lokalak erabiltzeko baimen proposamena organo eskudunak egingo du.

4.6.- Tokiko Gobernu Batzordeak behin-betiko esleipendunen ebazpena eman aurretik, interesatuei behin-behineko esleipendunen proposamena aurkeztuko zaie, informazioa emateko eta hala badagokio, 10 lanegunetan egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

4.7.- Lortutako puntuazioaren inguruan planteatu litezkeen kontsultak edo erreklamazioak udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, gehienez 10 laneguneko epean, iragarki taulan argitaratzen direnetik kontatuta. Ez dira inolaz ere tramite honetan baloratuko aurretik egiaztatu ez diren betekizunak, eskabidean azaldu direnak izan ezik eta, horretarako, ezarritako epean justifikazioa emateko ezintasuna adierazi beharko da.

4.8.- Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, behin-betiko esleipenaren zerrenda agertuko da idazten den ebazpen proposamenaren barruan, eta hala behar izanez gero, ordezkapenezkoa ere bai, eta Tokiko Gobernu Batzordeari bidaliko zaio, onets dezan.

4.9.- Adierazitako epetik kanpo egindako eskabideak onartuko dira baita barematu ere; horrela, bakarka edo konkurrentzian beste eskabideekin batera, baimendutako taldeen artean bajak edo uko egiteak gertatuz gero, baimendu ahal izango dira eta baldin eta ordezkatze zerrenda iraungita badago.

4.10.- Baimena aldi baterako izango da, eta, horrenbestez ez da guneen gaineko inolako eskubiderik izango hitzartutako epetik kanpo.

5.- Erabiltzaileentzako araudia.

5.1.- Talde eta musikari bakoitzak esleitutako lokala erabiliko du. Talde batek baino gehiagok erabili ahal izango du lokal bakoitza. Lokal bakoitzean egiten diren entsegu txandak tokatutako taldeen artean adostu beharko dituzte, eta ez dira aldatuko, eskatzaileen eta udalaren artean beste akordio bat egiten ez den bitartean.

5.2.- Talde batek edota musikari batek ez badu hiru hilabetez jarraian udal lokala erabiltzen, aretoa erabiltzeko eskubideari uko egin diola ulertuko da.

5.3.- Taldeek eta musikariek aldi baterako eten ahalko dute lokalen erabilera, daukaten eskubidea mantenduz, hori egitea justifikatzen duen arrazoia badago, eta, horretarako, horren berri idatziz eman beharko diote Kultura eta Gazteria Sailari. Beste talde batek edota musikari batek ordutegi horretan gune hori erabiltzea komenigarria den aztertuko du Udalak, titularraren jarduera eteten denean.

5.4.- Lokal bakoitzeko giltza taldeko partaideek soilik izan ahalko dute. Horrez gain, sarrera nagusikoa ere izango dute. Ibarra Udalak lokal guztietako giltzen kopia izango du.

5.5.- Nahiz eta Udalaren kontura joango diren energia elektrikoaren eta uraren kontsumoak, erabiltzaile guztien aldetik, horien kontsumo arduratsua egingo da.

5.6.- Taldea osatzen duten kide guztiek zein eta bakarkako musikariek buruko 80 euroko fidantza ezarri beharko dute. Taldearen ordezkariak fidantza osoa Udalak adierazten duen kontu korrontean diru-sarrera



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

bakarrean sartu beharko du. Diru-sarrera egiterakoan, taldearen izena eta ordezkariaren izen-abizenak zehaztuko dira. Fidantza horrekin, taldeak lokalean sor ditzakeen kalteak zein eta lokala egoera ezegokian uztetik eratorritako kalte eta galerak ordainduko dira. Lokalaren erabilera epe-baimena amaitzerakoan, Kultura eta Gazteria Sailak lokalaren egoera ikuskatuko du; taldeak edota musikariak lokala txukun, egoki eta kalterik gabe utzi duela baieztatzen bada, ezarritako fidantza ordezkariak adierazten duen kontu korrontera itzuliko da.

5.7.- Lokaletan taldeentzako eta musikarientzako ezinbestekoak diren altzariak besterik ez dira sartuko (bestelakorik ez da onartuko). Ibarra Udalak ez du bere gain hartuko taldeek eta musikariek bertan uzten dituzten musika-tresna edo materialen ardurarik.

5.8.- Talde bakoitzaren zein eta musikarieren ardura izango da instalazio guztiak zaintzea, bai erabiltzen dituzten lokaletakoak eta orokorrak ere (komonak, pasilloa eta sarrera). Irteera eramaten duten pasilloetan eta komonean ez da pilatutako materialik utziko inoiz.

5.9.- Erabiltzaileak derrigorrez arduratuko dira sor litezkeen hondakinak jasotzeaz. Lokal bakoitzeko garbiketarako plana erabiltzaileen artean adostuko da. Era berean, amankomunak diren espazioen garbiketa (komonak, pasilloa eta sarrera) erabiltzaile guztien ardura izango da; horretarako, erabiltzaile guztien arteko garbiketarako txandak ezarriko dituzte. Erabiltzaile guztien ardura izango da udal lokalak egoera onean mantentzea. Garbitasun egoera eskasa bada, kalte gisatzat hartuko da erabiltzaileek egoera hori zuzentzen ez badute.

5.10.- Lokaletan ezin izango da inongo aldaketarik egin Udalari baimenik eskatu gabe.

5.11.- Entseguak amaitzean entxufeak libre geratuko dira, hau da, erregeletak itzaliko dira, zirkuitu bakarrak ekiditeko.

5.12.- Gerta daitekeen edozein kalteren, haustura, instalazioen funtzionamendu desegokiren berri eman behar diote derrigorrez talde erabiltzaileek Kultura eta Gazteria Sailari, modu horretan ahalik eta lasterren akats horiek konpon daitezkeen eta instalazioak behar bezala zainduta mantentzen daitezkeen.

5.13.- Lokalak erabiltzen dituzten musika taldeek eta musikariek, dohain eta urtean behin, Udalak antolatzen dituen kontzertuetan eta beste jarduera batzuetan parte hartzeko aukera egongo da, beti ere, taldeekin adostuz eta Udalak interesekoa ikusten duenean.

5.14.- Taldekideak aldatzen direnean edo 2.2 art. aipatzen diren baldintzei eragingo liekeen aldaketaren bat gertatzen denean, horren berri eman beharko da aurreko puntuan ezartzen den prozeduraren arabera, eta Udalak dagokion erabakia hartuko du.

5.15.- Gune hori erabiltzeko aldia amaitzen denean, ordenatuta eta modu txukunean behar bezala utzi beharko da.

5.16.- Talde bakoitzak ordezkari bat izendatuko du Udalarekin harremanetan jartzeko. 16 urtetik beherako kasuan, adin nagusiko tutore bat izendatu beharko du taldeak edo partaideak.

5.17.- Ibarra Udalak edozein unetan lokalen eta instalakuntzen ikuskapena egin dezake. Erabiltzaileek ezingo dute ikuskaritza hori oztopatu, eta hori eginez gero, Udalak aukera izango du -musika talde edota musikari horren jarrera aztertu ondoren-, bertan jarduteko aukera kentzea.

6.- Ordutegia eta sarbidea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.1.- Ordutegia. Entseguak goizeko 08:00etatik gaueko 00:00 artean egin beharko dira nahiz eta musika taldeek eta musikariek ordutegi horretatik kanpo sartu edo ateratzeko malgutasuna izan zama lanak edo antzekoak medio.

6.2.- Sarbidea. Lokaletatik ateratzerakoan, lokaleko atea zein eta ate nagusia ongi itxi direla ziurtatuko da.

6.3.- Udalak, beharrezkoa baderitzo, lokalen sarbidea mugatzeko eta kontrolatzeko ate nagusian sarraila sistema elektronikoa jarriko du.

6.4.- Araudi hau betetzen ez duen edo interes orokorraren kontrako jarrera duen talde eta musikari orori ukatu egingo zaio lokaletara sarrera hilabete batez. Araudia behin eta berriz ez betetzeak lokalak erabiltzeko eskubidea galtzea suposatuko du.

6.5.- Segurtasun, osasun eta garbitasunagatik erabat debekatuta dago entseguetako lokal barruan erretzea eta alkohola edatea.

7.- Azken xedapenak.

7.1.- Ibarra Udalak beretzat gordetzen du lokaleko erabilera-txandaren bat erabiltzeko eskubidea, prestakuntza xedeetarako edo musikarekin zerikusia duten ekintzak gauzatzeko, betiere taldeari aurrez jakinarazita.

7.2.- Ibarra Udalak eta musika taldeek erabakiko dute elkarrekin ados jarrita, euren ordezkarien bidez, araudi honetan jaso gabeko guztiaren inguruan.

IBARRAKO UDALA ETA IBARRAKO MUSIKA TALDEEK ETA MUSIKARIEK BELAUNTZAKO ENTSEILU LOKALAK ERABILTZEKO KONTRATUA

Ibarra 2016ko apirilaren....an

Bildurik

Alde batetik, **Mikel Agirrezabala Ezkurdia** jauna, Ibarra Udalaren izenean, eta bertako Alkate izanik,

Bestetik,jaun/anderea, NAN..... zenbakiduna, helbidea.....duena eta adinez nagusia,

Esku hartzen dute

Mikel Agirrezabal Ezkurdia jauna, IBARRAKO UDALAREN izenean, joan den 2015eko ekainaren 13an buruturiko Udalbatzak izendatu zuena, honen ordezkaritza erabiliz

KONTRATUAREN XEDEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarako Udalak, Belauntzako obra pabilioian musika entseguak gauzatzeko hiru lokal egokitu zituen 2002. urtean. Modu honetan herrian musika ikasten jarduten duten gazteei aukera eman nahi zaie musika alorrean teoriarik ikasten dutena praktikan jar dezaten. Bestalde, egoki ikusi da pabilioi hauek herritik kanpo egokitzea bizilagunen artean zarata eta egoera desagokiak ekiditeko. Bide batez, eta herriko gazteen artean kultura musikala sustatzeko, Ibarako Udalak talde hauei aukera eman nahi die dohain eta urtean behin, Udalak antolatzen dituen kontzertuetan eta beste jarduera batzuetan parte hartzeko (beti ere Udalak eta taldeek interesekoa dela ikusten badute). Guzti hau horrela izanik, Ibarako Udalak dohainik lagatzen die herriko musika taldeei lokal hauen erabilera (bi aldean artean sortzen den erlazio kultural hori bermatzeko asmoz eta kontutan izanik taldekide hauetako asko adin nagusiak ez direla; Ibarako Udalak beregain hartzen du lokal hauen energia elektrikoa eta uraren kontsumoa)

KONTRATUAREN BALDINTZAK

LEHENENGOA: Ibarako Udalak XXXXX jaunari/andereari, XXX taldearen ordezkari gisa, bere jabetzapean dagoen Belauntzako obra pabilioiaren xxxxxxxxxxxx (gelaren zenbakia) lokala lagatzen dio dohainik, musika entseguak egiteko kontratu honetan agertzen diren baldintzapean.

BIGARRENGOA: xxxxxxxx zinpeko aitortza aurkeztu du non esaten den musika talde honen sorrera edo ibilbidea gutxienez 6 hilabetekoa dela.

HIRUGARRENGOA: xxxxxxxx, entsegu lokala erabili behar duten taldekideen izen, abizen eta NAN zenbakien zerrenda aurkeztu du eta baita taldekideen %50ak Ibarako Udalerrian eroldaturik daudenaren ziurtagiria. Talde bakoitzak ordezkari bat izendatuko du Udalarekin harremanetan jartzeko. 16 urtetik beherakoa den kasuan, adin nagusiko tutore bat izendatu beharko du taldeak edo partaideak.

LAUGARRENGOA: Lokal horretan ezingo dira kontzertuak edota izaera publikoa duten jarduerarik burutu, soilik entseguak egiteko aukera izango da bertan, eta ondorioz, baimendutako musikako taldekideak edota musikariek soilik erabili ahal izango dute. Erabilera ez egokia emanaz gero edota erabiltzaileek lokalen erabilera-arauegian ezarritakoa betetzen ez badute, Ibarako Udalak musika taldea edota musikaria kaleratzeko aukera izango du. Ibarako Udala ez da musika lokaletan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo.

BOSGARRENGOA: XXXX jaun/andereak xxxxxx eurotako fidantza (80 euro pertsonako) ezarri du Ibarako Udalaren kontu korrantean (XXXXXXXX). Fidantza horrekin, taldeak lokalean sor ditzakeen kalteak edota lokala egoera ez egoki batean uztekin eratorritako kalte eta galerak ordainduko dira.

SEIGARRENGOA: xxxxxxxx, lokalaren erabilera eskatzen duen taldearen ordezkari gisa, taldeak erabiliko duen materialaren, musika tresnen zein eta gainontzeko material elektrikoaren inbentarioa aurkeztu du. Ibarako Udala ez da material horren erantzule izango, eta lapurreta edo matxurak izanez gero, Ibarako Udalari ezingo zaio horrelakorik egotzi. Lokalaren erabiltzaileek euren materialaren ardura eta zaintzaren erantzukizuna izateaz gain, gainontzeko erabiltzaileen materialarekiko errespetua eta zaintza izango dute.

ZAZPIGARRENGOA: Talde bakoitzak erabiltzen duen lokaleko zein eta orokorrak diren instalazio guztiak -komonak, pasilloa eta sarrera- zaintzeko ardura izango du. Irteerara eramaten duten pasilloetan eta komonean ez da inoiz pilatutako materialik utziko. Material arriskutsuak, osasunerako kaltegarriak zein eta sukoiak sartzea debekatuta dago. Bestalde, gerta daitezkeen kalte, haustura edota instalazioen funtzionamendu desagokiren berri eman behar diote derrigorrez Kultura eta Gazteria Sailari, ahalik eta lasterren akats horien konponketa egin dadin, eta instalazioak behar bezala zainduta mantentzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZORTZIGARRENGOA: Udal lokalean ezin izango da inongo aldaketarik egin Udalari baimenik eskatu gabe. Bestalde, entseguak amaitzean, entxufeak libre geratuko dira eta erregeletak itzaliko dira zirkuitu bakarra ekiditeko.

BEDERATZIGARRENGOA: Entsegurako lokalaren erabilera-lagapena gehienez bi urtetarako egingo da eta urte bakoitza urtarrilaren 1etik abenduaren 31a arte indarrean egongo da. Talde edota musikari batek ez badu hiru hilabetez jarraian udal lokala erabiltzen, aretoa erabiltzeko eskubideari uko egin diola ulertuko da eta Ibarra udalak beste talde edo musikari bati erabilera emateko aukera izango du.

HAMARGARRENGOA: Taldeek edota musikariek lokalaren erabilera aldi baterako eten ahalko dute, daukaten eskubidea mantenduz, hori egitea justifikatzen duen arrazoiak bada, eta horretarako, etenaldiaren berri idatziz eman beharko diote Kultura eta Gazteria Sailari. Beste talde batek ordutegi horretan gune hori erabiltzea komenigarria den aztertuko du Udalak, titularraren jarduera eteten denean.

HAMAİKAGARRENGOA: Lokal bakoitzeko giltza taldeko partaideek soilik izan ahalko dute. Horrez gain, sarrera nagusiko giltza ere izango dute. Ibarra Udalak lokal guztietako giltzen kopia izango du.

HAMABIGARRENGOA: Erabiltzaileak derrigorrez arduratuko dira sor litezkeen hondakinak jasotzeaz. Lokal bakoitzeko garbiketarako plana erabiltzaileen artean adostuko da. Era berean, amakomunak diren espazioen garbiketa (komonak, pasilloa eta sarrera) erabiltzaile guztien ardura izango da; horretarako, erabiltzaile guztien arteko garbiketarako txandak ezarriko dituzte. Erabiltzaile guztien ardura izango da udal lokalak egoera onean mantentzea. Garbitasun egoera eskasa bada, kalte gisatzat hartuko da erabiltzaileek egoera hori zuzentzen ez badute.

HAMAHIRUGARRENGOA: Erabilera epea amaitzean, talde eta erabiltzaile guztiek lokala eta bertan dauden tresnak modu ordenatu eta txukunean utzi beharko dituzte. Utzi ezean, Udalak aukera izango du taldeek aurrez ezarritik duten fidantza erabiltzeko bertan sortu diren kalteak konpontzeko. Erabilera epea amaitzean Udalak ikuskaritza egingo du; dena egoki dagoela ziurtatzen badu, gehienezko 10 eguneko epean, taldeei eta musikariei ezarritako fidantza itzuliko zaie.

HAMALAU GARRENGOA: Udalak edozein unetan lokal eta instalakuntzen ikuskapena egin dezake. Erabiltzaileek ezingo dute ikuskaritza oztopatu, eta hori eginez gero, Udalak aukera izango du -musika talde edota musikari horren jarrera aztertu ondoren- bertan jarduteko aukera kentzea.

HAMABOSGARRENGOA: "Ibarra musika taldeek eta musikariek Belauntzako udal entsegu lokalak erabiltzeko araudia" udal-araudiak erregulatzen ditu Belauntzako udal musika lokalak. Erabiltzaileak araudia betetzera behartzen dira.

HAMASEIGARRENGOA: Kontratu honetatik eratortzen diren zalantza eta auzietan Ibarra Udalak interpretatzeko ahalmena izango du. Kultura eta Gazteria Sailaren aldez-aurretiko txostenarekin, Tokiko Gobernu Batzordea izango da kontratu honetatik sor daitezkeen auziak ebatziko dituen organo eskuduna.

Alkatea

xxxx jaun/anderea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko apirilaren 13ko Kultura eta Gazteria Batzordearen diktamena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Belauntzako musika entsegurako lokalen funtzionamendua erregulatzeko arautegia

BIGARRENGOA: Onartzea Belauntzako musika entsegurako lokalen erabilera baimentzeko kontratuaren eredu

BOSGARRENA

5.- OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA KONTRATATZEKO PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA

Euskara Teknikariak, Oporretan euskaraz udaleku irekiaren antolakuntza eta kudeaketa kontratatze (publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez) plegu administratibo eta teknikoak aurkezten dizkio Tokiko Gobernu Batzordeari, honek onar ditzan (I ERASKINA)

Idazkariak jakinarazten du plegu hauek dagokion batzordeak proposatu beharko lituzkela.

Guztia ikusirik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Oporretan euskaraz udaleku irekiaren antolakuntza eta kudeaketa kontratatze publikitate gabeko prozedura negoziatuaren plegu administratibo eta teknikoak (I ERANSKINA)

BIGARRENGOA: Erabakia Kontuhartzaitetza saialari jakinarazi.

I ERANSKINA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA KONTRATATZEA PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea 2016. urtean Ibarra udalak sustatzen duen Oporretan Euskaraz udaleku irekiaren antolakuntza eta kudeaketa zerbitzua kontratatzea da.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Prestazioa eskaintzeko guztizko epea URTE BETEKOA (1) izango da.

3.- KONTRATUAREN IZAERA ETA MOTA, ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuaren xedea kontuan hartuz, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bategina- SPKLTB- onartzen duenak 10 eta 19 art.etan xedaturikoari jarraiki, administrazioko zerbitzu kontratu bat da.

Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleituko da, SPKLko 138, 142 eta 169. artikuluetan adierazi eta arautzen den bezala.

Kontratua arautuko duen legeria:

- a) Plegu honetan eta plegu teknikoan jasotako baldintzak.
- b) Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena, aurrerantzean SPKLTB.
- c) Indargabetu gabeko Urriaren 12ko 1098/2001eko Errege Dekretua, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- d) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa partzialki garatzen duena.
- e) Administrazio kontratazioa arautzen duen estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko foru edo tokiko aplikagarri den bestelako xedapenak.
- f) Kontratu honi zuzenean nahiz zeharka eragin liezaiokeen edozein mailako beste xedapen bat.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aurkakotasuna balego Plegu ekonomiko-administratibo honen eta kontratazio espedientean jasotako gainerako agirien artean, plegu honek aginduko du, alderdi teknikoetan izan ezik, horietan Baldintza Teknikoen Pleguak aginduko baitu.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa baliatuko da kontratua dela-eta sor daitezkeen auzietarako.

4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa gehienez, **32.000 € izango da BEZ barne**. Eskatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Prezio horretan sartuta daude zerbitzua aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak (beharrezkoa den pertsonalaren soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, langileen dietak, inbentariagarria ez den materiala..., hau da, udalak bere gain plegu honetan espresuki hartzen ez dituen gastu guztiak.)

Adjudikazio-hartzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita baldin badago, behar bezala ziurtatu beharko du eta zenbateko hori ez da eskaintzan sartuko.

5.- FINANTZABIDEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da udal aurrekontuan.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketak prozedura honi jarraituz egingo dira:

- Lehenengo ordainketa, urteko prezioaren guttizkoaren $\frac{80}{100}$, udalekuen antolakuntza eta exekuzio lanei dagokiona, aipatu lan horiek eginda daudenean ordainduko da, uztailaren 15erako, beti ere esleipendunak fakturak edo kontratuak aurkeztuz gero.
- Bigarren ordainketa, udalekuen kudeaketari dagokiona da, eta urteko zenbatekoaren $\frac{20}{100}$ koa izango da. Zenbateko hori jaso ahal izateko derrigorrezkoa izango da kontratuko betebeharrak guztiak betetzea, eta gastuen likidazioa aurkeztu, bai eta gastu horien egiaztagiria ere, udalekuetako jardueren programari eta balorazioari buruzko informazioa jasotzen duen txostenarekin batera.

7.- ESKAINTZAK ESKATZEA

7.1.- Enpresa lizitatuak.- SPKLko 178. artikuluari jarraituz, Ibarra Udalak eskaintzak eskatu ahalko dizkie kontratu hori egiteko gai diren hiru enpresari edo gehiagori. Eragin horretarako, gai joko dira jarduteko gaitasun erabatekoa duten pertsona natural edo juridiko espainiarrak edo atzerriarrak, baldin



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta ez badute SPKLko 60. artikuluan jasotako debekuetako bakar bat ere.

Eskaintzaren bat aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri honetako klausulak, eta adierazpen erantzulea ere bada, Administrazioarekin kontratua egiteko behar diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazten duena.

7.2- Eskaintzak.- Enpresaburuei, ahal den guztietan, eskaerak idatziz eskatuko dizkie kontratazio organoak.

8.- BERMEAK

Behin-behineko bermea

Ez dago.

Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu duen lizitatzailleak, ezarritako betebeharrak betetze aldera, behin betiko bermea ezarriko du, hain zuzen, adjudikazio zenbatekoaren %5ari dagokiona, BEZ sartu gabe.

Berme hori ezartzeko epea bost egunekoa izango da, behin-behineko adjudikazioaren iragarkia egiten denetik kontaktzen hasita eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 96.1 art.an ezarritako edozein modutan ezar daiteke.

Bermea itzultzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 102 art.an ezarritako moduren batean egingo da, behin berme epea igarota eta adjudikatzaileak kontratu betebeharrak bete ondoren.

9. KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

EAEko hizkuntza ofizialei dagokionean ondoren betebeharrak zehazten dira:

9.1. Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoren.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz, betiere administrazioarekin alde zuzenetik adostuta.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9.2. Erabilera herritarrekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgoragailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanaz.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatuko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

9.3. Erabilera administrazioarekin:

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLTaren 118.2. artikulua araberak, baldintza horiek ez betetzeak kontratua etetea eragin dezake, 223. F) artikuluan adierazi bezala.

10.- KONTRATAZIO ORGANOA

Zerbitzu honen kontratazioa Alkatetzak esleituko du, dekretu bitartez.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

11.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 169 eta 174. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lege horretako 174 e) artikuluan agertzen den egoera bera baita.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Irizpide hauexek izango dira kontratua adjudikatzeko oinarri, garrantziaren eta puntuazioaren arabera ordenatuta:

I.- Eskaintza ekonomikoa: (50 puntu).

Eskaintza ekonomiko hoberenari emango zaio puntuazio handiena eta zero puntu lizitazio prezioari. Gainerako eskaintzen puntuazioa izango da biderketa honen emaitza: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta lizitatzaillearen eskaintzaren arteko koefizientea bider irizpideari aplikagarri zaizkion puntuak, hau da,

Ob x Z

OI

Ob da eskaintza ekonomiko baxuena eta OI lizitatzaillearen eskaintza; Z aplikagarri diren gehieneko puntuak irizpidean.

II.- Txosten teknikoa. (40 puntu)

a.- Marko teorikoa eta proiektuaren helburuak. Helburu orokorren, zehatzen eta ekintzen arteko kohesio maila.

b.- Lan-metodologia: 1. Helburuen, prozesuen eta emaitzen ebaluazio adierazleak. Ebaluazio prozedurak eta euskarriak. 2. Begiraleen koordinazioa eta formazio proposamena. 3. Gurasoekiko harremanetarako proposamena. Baimenak eta protokoloak. 4. Udalareriko eta herriko eragileekiko koordinazio proposamena 5. Haurren behaketa eta entzuketarako proposamena. 6. Haurren parte-hartzea sustatzeko proposamena. 7. Premia berezia duten pertsonen integrazioarako proposamena.

c.- Zeharkako lerroak jorratzeko kalitatea eta gaurkotasuna. 1. Generoen arteko elkarbizitza bermatzeko proposamena. 2. Euskararen erabilera bermatzeko proposamena. 3. Bizikidetzeta eta aniztasuna bermatzeko proposamena.

d.- Proposamena udalerraren errealitatera egokitzea: 1. Herriko azpiegiturak, ingurune naturala, espazio irekiak eta udal zerbitzuak udalekuan baliatzeko proposamena (liburutegia, parkeak, landa eremua...) 2. Herriko eragileekin udalekuan zehar koordinatzeko proposamen zehatzak (kantitatea, dimentsioa, bolumena, sakontasun...).

III.- Hobekuntzak (10 puntu)

Udalekuetarako blog, argazkien eta bideoen kudeaketarako proposamena: eskuragarritasuna eta segurtasuna eta pribatutasuna babestea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aipatutako irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatuko da parte-hartzaileekin.

12.- KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan, pertsona natural edo juridikoen parte hartu ahalko dute, baldin eta ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 60. artikuluan ezartzen dituen ezintasun edo bateraezintasunetako bat ere ez badute. Kaudimena 1. klausulako e) eta f) letretan ezarritako bideen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo beste pertsona batek ordezkatuta, horretarako emandako ahalmenaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa horko kideren batek parte hartu badu, horretarako ahalmena duela egiaztatu beharko du, agirien bidez. Hala, kasu batean nola bestean, ordezkariari ere eragingo diote lehen adierazitako kontratatzeke ezintasunek.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea eskatuko da.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonen badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonen eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea .

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

13. ESKAINTZAK AURKEZTEA ETA PARTE-HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Prozedura honetan parte hartzeko proposamenak ezarritako epean aurkeztu beharko dira.

Proposamen horiek Ibarra Udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, San Bartolome Plaza 2 zk.an, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00ak arte.

Epez kanpo aurkezturiko proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta jasota gelditu postetxean aurkeztu zirela epea amaitu aurretik, ez bazaio kontratazio organoari bidaltzen telex edo telegrama bidez eskaera egin zeneko egunaren egiaztatzea, postaz bidali zeneko egunarena.

Kontratazio honetako espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Administrazio honetako Idazkaritzan aztertu ahalko da, 09:00etatik 13:30era, lanegun guztietan, eskaintzak aurkezteko epe osoan.

Eskaintza horiek adierazitako toki eta ordu berean aurkeztuko dira, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azal horretan, honako hau idatziko da: **“OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA KONTRATATZEA PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ ADJUDIKATZEKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKAINTZA”**. Dokumentu hauek izango ditu barruan:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunderen baten ordezkari gisa jarduten bada, notario-ahalordea ere aurkeztu beharko da.

b) Lizitatuak pertsona juridikoa denean, Merkatu Erregistroan behar bezala inskribatutako eratzeko edo aldatzeko eskritura aurkeztu beharko da, halakorik bada, eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman beharko da, aplikatzeko den merkatu legediaren arabera inskribatuta egon behar bada. Hala ez bada, eskritura edo eratzeko dokumentu bidez, estatutu edo sortze egintza bidez egiaztatuko da jarduteko ahalmena. Agiri horiek, beharrezkoa izanez gero, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira eta jardueraren arauak agertuko dira bertan. Espainiarrak ez baina Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuak badira, kokatuta dauden estatuko legediaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu, Europar Batasunean aplikatzekoak diren xedapenen arabera.

c) Berriazko adierazpen erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko 60. artikuluan, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua (I ERANSKINA), agertzen diren kontratatze debekuetako bakar bat ere ez dutela adierazten duena. Halaber, espresuki adieraziko da indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga betebeharrak guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkatela, azken bi egoera horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu ez badira.

d) JEZn alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, zehazki kontratuaren xedari dagokion epigrafean alta emanda daudela, baldin eta urte horretakoa bada ziurtagiria, edo JEZren azken ordainagiria, beste kasu guztietan; bi kasuetan, zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaintzaileek zerga horren matrikulan baja ez dutela eman dioena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

e) Kaudimen ekonomiko finantzarioaren egiaztagiriak:

Kaudimen ekonomiko finantzarioa egiaztatuko da enpresaren urteko kontuen bidez edo haien laburpen bidez, gutxienez bi erakunde finantzarioen txostenekin batera.

f) Kaudimen tekniko edo profesionala:

- Kaudimen tekniko edo profesionala, SPKLTBaren 78 art.ak ezarritako bitartekoren baten bidez.

Hautatuak izateko, enpresaburuek zerbitzuen kontratuak ematen gutxienez bi urteko esperientzia dutela egiaztatu beharko dute. Berariaz ohartarazten da hori egiaztatzeko kontratua eman den Udalaren ziurtagiria aurkeztu beharko dela.

- kontratu honetako koordinazio lanak egingo dituenak unibertsitateko erdi mailako titulazioa, Aisialdiko zuzendariaren titulua eta haur eta gazteekin ekintzatan hiru urteko esperientzia izan beharko du. Koordinazio lanetan arituko denaren argiri horien kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira parte hartzeko eskaerarekin.

- Kaudimena frogatzeko, gainera, prozeduran parte hartzera onartutako lizitatzailleek haien proposamenetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratatuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPTLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da 223 f) artikuluan adierazi bezala.

- Horrela, esleipendunak, kontratua burutuko duten langileen izen-abizenak eta horien lanbide-prestakuntza adierazi beharko da.

- Era berean, esleipendunak, kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko du Oporretan euskaraz udalekuetarako izendatzen dituen begiraleek batxilergo titulua edo Goi Mailako heziketa zikloa beharko dutela (Gizarte eta Kultura animazioa, Gizarte eta Kultur Zerbitzuetako Goi mailako teknikaria...) hauetako %40ak aisialdiko monitore titulua izan beharko du (kontratua sinatzeko kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira).

- Langileen %100 nahitaez egiaztatu beharko dute administrazioko 3. Hizkuntza eskakizuna, dagokion ziurtagiria aurkeztuta, 263/1998 Dekretuari jarraituz. Beraz, hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo administrazioko 3. Hizkuntza eskakizunaren pareko beste titulu batzuk aurkeztu ahalko dira.

- Lan honetan arituko diren orok, ziurtatu beharko du ez dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka egindako delituengatik kondenatua izan epai irmoarekin. Horretarako, Sexu delitugileen erregistroko Zentralaren ziurtagiria ekarri beharko da (uztailaren 28ko, 26/2015 legeak egindako, adingabearen babes juridikoaren urtarriaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua aldaketa).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Zerbitzua emango duen langilearen identifikazioa, eta hala badagokio hizkuntz gaitasunaren egiaztatzea.

g) Baldin eta hainbat enpresaburuk enpresen aldi baterako elkarte gisa parte hartzen badute lehiaketan, elkarte hori osatzen duten guztiek egiaztatu beharko dute jarduteko ahalmena eta kaudimena badutela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta adjudikaziodun suertatuz gero aldi baterako elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa agertu beharko dute. Halaber, aldi baterako elkarte horretako kide bakoitzak xedearen zein zati egingo duen adieraziko da eskaintzan, guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

h) Atzerriko enpresek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jarriko direla dioen adierazpena aurkeztu beharko dute, zuzenean edo zeharka sor daitezkeen kontratuaren gorabehera guztietarako, eta hala behar izanez gero eskaintzaileari dagokion jurisdikzio foruari uko egingo diotela adierazi beharko dute.

i) Eskaintza baloratzeko lagungarri gerta daitezkeen agiriak, agiri honetako 12. atalean adierazitakoaren arabera.

j) Eskaintza ekonomikoa, eredu honetara egokitua:

Jauna/andrea:.....

PK:.....NAN:.....Telefonoa:.....Helbide

elektronikoa:.....

Ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoz, bere izenean edo ren ordezkari gisa (helbidea:.....

PK:.....; telefonoa:..... eta NAN edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa bada):.....), prozedura negoziatu bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudalarik, hauadierazten dut

1) Konpromisoa hartzen dudala kontratua euroan betetzeko

(..... €, %.....(e)ko BEZarenak), epean. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak daude sartuta, edozein arlotako zerga, gastu, tasa eta arielak, eta kontratistaren etekin industrialak barne.

2) Ezagutzen ditudala klausula administratibo berezien agiria, baldintza teknikoaren agiria eta kontratua arautuko duten gainerako dokumentuak, eta espresuki onartzen ditudala eta guztiari men egiten diodala.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

.....-(e)an, 20.....ko -(a)ren(e)(a)n.

Sinadura

Halaber, aurreko a), b) eta e) letretan adierazitako egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edota Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahalko dira, SPKLko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ziurtagiri horrekin batera eskaintzailearen adierazpen erantzule bat aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan, ziurtagirian agertzen diren egoerak ez direla aldatu adierazi beharko da.

Aurkeztutako agiriak jatorrizkoak edo Administrazioak nahiz notario batek konpultsatutako edo benetakotzat jotako kopiak izan ahalko dira.

Testu Bateginaren 178.2 artikuluari jarraiki, Udalak negoziatu beharreko eskaintzak murriztu ditzake baldintza plegu honetako irizpideak jarraituta.

Negoiazioa amaituta, haren ondorioz iritzia aldatu duten parte-hartzaileek azken eskaintza bidali beharko dute, ekonomikoki abantailatsuen zuzen eskaintza den ikusi eta horren arabera eskaintza ekonomiko hoberena hautatzeko.

14.- ADJUDIKAZIOA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Egindako eta amaitutako eskaintzak kontuan hartuta eta, halakorik izan bada, parte-hartzaileekin egindako negoziazioak Kontratazio Mahaia espedientea aztertuko du, eta adjudikazio proposamena igorriko dio kontratazio organoari.

Kontratazio organoak, neurritz kanpoko edo ez normaltzat joak izan ez diren proposamenak beherazko ordenaz sailkatuko ditu.

Kontratazio organoak, eskaintza ekonomikorik onena egin duen eskaintzaileari, hamar lanegunetako epean, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik hasita, ondorengo ziurtagiriak aurkeztea eskatuko dio:

- a) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- b) Kontratua gauzatzeko agindutako baliabideak benetan badituela.
- c) Bidezkoa den behin betiko bermea eratzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eskakizun hori adierazitako epean betetzen ez bada, eskaintzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta hurrengo eskaintzaileari eskatuko zaizkio agiri horiek, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraituta.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hamar egun baliodun igaro baino lehen adjudikatuko du kontratua.

Eskaintza ezingo da hutsik utzi baldintza pleguan ezarritako irizpideekin bat datorren eskaintza edo proposamenen bat egonez gero.

Adjudikazioa arrazoitua izango da eta hautagaiei edo lizitatzzaileei jakinaraziko zaie.

15.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua agiri administratibo baten bidez formalizatuko da, gehienez ere adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen. Agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratistak eskatu ahalko du kontratuaren eskritura publikoa egitea. Hala bada, berak ordainduko ditu gastuak .

Kontratua formalizatzen denean perfektionatuko da.

16.- KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua kontratistaren gain eta galorde gauzatuko da, eta ez da azpikontrataziorik onartuko.

Kontratua agiri honetako klausulen arabera beteko da, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz baliatuko du ahalmen hori.

Baldin eta kontratistari edo haren mendeko pertsoneri egotzi ahal zaizkien ekintzengatik edo haiek egin beharreko eginbeharrak ez egiteagatik kontratua ondo ez betetzeko arriskua badago, Administrazioak egoki iritzitako neurriak hartzea exijitu ahalko du, kontratua ondo gauza dadin.

17.- KONTRATISTAREN LANeko BETEBEHARRAK

Kontratistak lan arloko lege xedapenak, Gizarte Segurantzza eta laneko segurtasun eta osasun betebeharrak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango kontratistak betebeharrak horiek betetzen ez baditu.

18.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEAN HIRUGARREN BATZUEI EGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, SPKLko 214 eta 305 artikuluen arabera.

Berme horrek estaliko ditu kontratuari loturiko arriskuak eta bereziki, hirugarren batzuei egindako kalteengatiko erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), bai esleipendunaren, bai langileen eta mendekoen egintzen ondorioz sorturiko kalteak, tresnerian izandakoak eta kontratu honen helburu den zerbitzua ematerakoan egindako lanengatik sorturiko kalteak.

19.- KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 219. artikularekin bat etorritik, administrazio kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko da, I Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta eran, eta 211. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorritik. Kasu horietan, kontratazio organoak adostutako aldaketak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

20.- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI JARRI AHAL ZAIZKION ZIGORRAK

A/ KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK

Baldin eta kontratistak berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua garaiz amaitu ez badu, hala epe osoari dagokionez nola, halakorik bada, epe partzialei dagokienez, Administrazioak bi erabaki hauetako bat hartu ahalko du: edo kontratua etetea bermea kenduta, edo egunean eguneko zigorrak jartzea, kontratuaren prezioa 1.000 euro bakoitzeko 0,20ko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuko %5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua azkentzeko edota harekin aurrera jarraitzeko, beste zigor batzuk jarrita.

B/ PRESTAZIOAK PARTZIALKI GAUZATZEA

Kontratistak berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik kontratuan zehaztutako prestazioetako batzuk bete ez baditu, Administrazioak bi aukera hauek izango ditu: edo kontratua azkentzea, edo zigor bat jartzea, kontratuaren guztizko prezioaren ehuneko 10aren heinekoa.

Prestazioa ondo eman ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren heineko zigorra jarri ahalko du.

Kaudimena 11.e) klausulan ezarritako baliabide material edo pertsonalekin osatzeko betebeharra bete ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren heineko zigorra jarri ahalko du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zigor horiek lege ezarritako prozeduraren bidez eraturako bermetik ordainduko dira, eta kontratistak osatu beharko du ondoren bermea, zigorrak ordaintzeko zati bat kendu behar den bakoitzean.

21.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu kontratua bukatzeko arrazoi izango dira SPKLko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak, eta SPKLko 225. eta 309. artikuluetan adierazitako baldintzetan eta ondoreekin.

21.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, amaitzea eta horren eraginak erabakitzea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorrek ezarritako mugen barruan eta horko baldintza eta eraginak betez.

23.- BALIABIDEEN ARAUBIDEA

Kontratazio honi dagozkion ebazpenek eta izapidezko egintzek, baldin eta azken horiek zuzenean edo zeharka erabakitzen badute gaiaren muinaren gainean, ezartzen badute ezin dela prozedurarekin jarraitu, babesgabezia sortzen badute edo eskubide eta interes legitimoetan kalte konponezina badakarte, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako berraztertze errekurtso administratiboa jarrai ahalko da, edo, bestela, administrazioarekiko auzien errekurtso bat jarri ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean araututakoari jarraiki.

Interesdunek gainerako izapidezko egintzen aurka daudela alegatu ahalko dute, prozedura amaitzen duen ebazpenean kontuan har daitezten.

24.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio hau dela-eta, norbanakoen datuak erabili behar badira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu bateratuaren hogeita zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legeari eta Lege gori garatzen duen araudiari dagokionean.

EGINBIDEA: Jasota geratzeko baldintza administratiboan plegu hau Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuela



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

I ERANSKINA

AITORPEN EREDUA

Nik,jaun/andreak, adinez nagusiak, NAN zenbakia,.....telefono zenbakia eta fax zenbakia ditudan eta..... helbidea duen honek, honakoa aitortzen dut: herri administrazioarekin kontratatzeko ahala dudala, jarduteko gaitasuna dudala eta SPKLaren Testu Bateginak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 60 art.an aurreikusitako inolako ezgaitasun baldintzatzen ez nagoela.

Halaber, aitortzen dut:

- Zerga eta gizarte segurantzetako betebeharretan egunean nagoela, urriaren 12ko APLEOk (1098/2001 ED) 13 eta 14 art.etan aurreikusitako moduan.
- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda nagoela eta ez dudala bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan " **OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA KONTRATAZIOA**"n, aitorten hau sinatzen dut .

....., 20....koren.....n.

Sinadura.

SEIGARRENA

JUANA GRANADOS HERNANDEZ ANDREAREN ESKAKIZUNA NITXOEN INGURUAN

JUANA GRANADOS HERNANDEZ and.ak eskaera bat aurkeztu zuen 2016ko urtarrilaren 21ean (sarrera erregistroa 109 zk.) . Bertan adierazten du, bera oinordeko izanik, uko egin nahi diola 1988ko maiatzaren 19an Teofilo Granado eta familiari emandako nitxoei (E kalea, 3 lerroa, 20 zk eta E kalea , 3 lerroa, 19 zk.). Horrez gain, eskatzen du ordaintzeko bizi- maila aplikatuz dagokion



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

zati proportzionala, izan ere, udal araudiak ez du uzten beste herri batzuetakoak lurperatzen eta berak ez du senitartekorik Ibarran; beraz, ezin du eskubide hori gauzatu.

2016ko otsailaren 26an Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen interesdunari jakinaraztea udalak ez zuela nitxoak eskuratzeko asmorik, izan ere, nitxo asko daude 10 urteko lagapenarekin eta horiek berreskuratu egingo dira. Horrez gain, jakinarazi zitzaion gaur egun hildakoen %50 erraustu egiten dela eta ez dela beharrezko nitxo gehiago zerbitzua bermatu ahal izateko. Eskaera kontuan izanda, Ibarra udalak jakinarazten du nitxo horretan beste senitartekoren bat lurperatu nahi izanez gero, udalak aztertuko duela aukera hori.

2016ko martxoaren 15ean JUANA GRANADOS HERNANDEZ and.ak eskaera hau aurkeztu zuen (435 zk.): 2016ko otsailaren 26ko Gobernu Batzordearen erabakia onartuta, eskatzen du erabaki zehatza hartzeko arazo horren inguruan, hau da Ibarra erroldatuta ez daudenak lurperatzeko baimena ematea (ez duelako senitartekorik Ibarra) eta bestela emakida eskubidea saltzeko aukera emateko Ibarra hirugarrenei (partikularrak; eta konpromisoa hartzen dute udalari jakinarazteko emakidaren titularitate aldaketa).

Guztia ikusirik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea JUANA GRANADOS HERNANDEZ andrearen eskaera (2016ko martxoaren 15ekoa) eta ondorioz aukera ematea TEOFILO GRANADOS jaunaren oinordeko eta familiarteko Ibarra hilerriko nitxoan lurperatzeko emakida indarrean dagoen bitartean.

BIGARRENGOA: Onartzea eta aukera ematea emakida eskubidea Ibarra hirugarren bati saltzeko (partikular bati alegia). Aukera hau emango da baldin eta emakidaren titularitate aldaketa udalari jakinarazten bazaio. Baldintza hau ez betetzeak salerosketaren deuseztapena ekarriko du ondorio bezala.

ZAZPIGARRENA

7.1 EUSKADIKO GURASO BANANDUEN FEDERAKUNTZAREN ESKAERA

2016ko apirilaren 9an Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntzak email baten bidez honako eskaera egiten dio Ibarra Udalari: adin txikiak erroldatzeko baldintzak aldatzea. Hau da, gurasoen bizilekua kontua izatea (eta ez aldiz adin txiki horren ohiko bizilekua; ikusirik agian zaintza partekatua duela baina soilik herri batean errolda daitekeela) seme-alabek herrian dauden zerbitzu ezberdinak edozein herritarrek bezala erabili ahal ditzaten. Beraz, justifikatzen duen sententzia



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurkeztuz gero, aukera izatea aita (edo ama) erroldaturik dagoen herriko zerbitzuak erabiltzeko (eta onura ekonomikoak izateko) beste edozein herritar bezala (kontutan izan gabe adin-txiki horren errolda non dagoen).

Tokiko Gobernu Batzorde kideei zalantza sortzen zaie bi gurasoak herri berdinean erroldaturik dauden kasuarekin. Kasu honetan zeinek jasoko du onura edo hobaria? Eta hori nola kudeatzen dute beste herrialdeetan?

Guztia ikusirik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntzari egiten duten eskaeraren inguruan zehaztasun gehiago eskatzea. Zehazki zer nahi duten eta bananduriko gurasoak (biak) herri berdinean erroldaturik daudenean nola kudeatu planteatzea eskatzen zaie (agian beste herri batzuetan lortu dute uztartzea).

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntzari.

ZORTZIGARRENA **8.-GALDERA ETA ESKAERAK.**

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamarrak eta berrogei direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.